

Bergaran, bi mila eta hogeitabateko otsailaren 4an ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkatea eta Bergarako Udalaren ordezkari izan.

Bestetik, Elisa Carmona Maldonado, adinez nagusia, 23751508Y NAN zenbakiduna, eta G20047569 IFK duen ASPACE GIPUZKOA elkartearen lehendakaria dena eta elkarte honen izenean.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta

ADIERAZI DUTE

1. Bergarako Udala dela Ibaiondo 9ko eraikinaren jabea.
2. ASPACE GIPUZKOA bere zerbitzuak aurrera eramateko lokal hau behar duela eta dagoeneko erabiltzen duela.

Hori dela eta, bi aldeek lokal horren erabilera arautzeko ondorengo klausulak dituen kontratua hitzartu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Bergarako Udalak Ibaiondo 9ko lokala erabiltzeko baimena ematen dio ASPACE elkarteari inolako errentarik edo bestelakorik ordaindu gabe eta honek onartu du.

BIGARRENA.- Erabiltzeko egiten den lagapen honek 2021eko abenduaren 31 arteko iraupena izango du kontratu hau sinatzen denetik kontatzen hasita, eta bi aldeek adostasunarekin uztez urte luzatu ahal izango da gehienez ere 10 urte osatu arte ASPACEk lokala helburu honetarako erabiltzen duen bitartean:

-Garun paralisia duten pertsonen eta familien bizi guztirako aholkularitza, zerbitzua eta laguntza eskaintzea.

HIRUGARRENA.- ASPACE GIPUZKOA lokal hau garun paralisia duten haur eta gaztetxoek ikastetxe moduan erabiliko du, zerbitzu hau astelehenetik ostiralera eskaintzen da goizez eta arratsaldean.

Hemen adostutako erabileratik aparte, beste zerbitzuetarako erabili nahi izanez gero, berriz aurkeztu beharko du eskaera idatziz udaletxean, zertarako erabili nahi den eta aldaketaren arrazoiak azalduz.

Eskaera aztertu ondoren, alkateak dagokion erabakia hartuko du.

Eskaera onartu ezean, lokala libre utzi beharko dute, laga zaienean zituen baldintzetan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

LAUGARRENA.- ASPACE elkarteak bere gain hartzen du lokala orain dagoen bezala kontserbatzeko egin beharreko gastuak egiteko konpromisoa, eta horien berri eman beharko dio aurrera udalari. Halaber, eraikinaren garbiketa arduratuko da. Eraikinaren mantenu eta inbertsio gastuak ASPACEk bere gain hartuko ditu.

BOSGARRENA.- Jabeak edozein momentutan ikuskatu ahal izango du lokala, kontserbazio egoera ziurtatzeko.

SEIGARRENA.- Eraikinak dituen zergak Udalaren gain joango dira.

ZAZPIGARRENA.- Jabeak ez du bere gain hartzen lokalean egon daitezkeen materialen kalteen, lapurreten edo hondatzeen erantzukizunik.

ZORTZIGARRENA.- ASPACEk gutxienez 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du, Udalarekiko erantzukizuna ere bere barne hartzen duena.

BEDERATZIGARRENA.- Bigarren klausulan jasotakoez gain, honako hauek ere kontratu hau bertan behera lagatzeko arrazoaiak izango dira:

- Auzokideek behin eta berriz aurkeztutako kexak, jabeak nahikoa arrazoituak direla irizten direnean.
- Kontratu honetako klausulak ez betezea.
- Elkartea desagertzea.
- Indarrean dagoen legerian aurreikusitakoak.

HAMARGARRENA.- Erabiltzeko egiten den lagapen honek ez du sortzen aurrerantzean hor edo beste nonbaiten udal lokalak erabiltzeko eskubiderik.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea



Elisa Carmona Maldonado
ASPACE GIPUZKOA
elkarteko lehendakaria

